

OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko otsailaren lauko gaueko bederatzia direnean, bildu dira, ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar Zinegotzia

Jose Luis Albisua Lasa Zinegotzia, ez da etorri.

Bittor Astigarraga Zugasti Zinegotzia, ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2009KO ABENDUAREN 9 ETA ABENDUAREN 23KO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2.009ko abenduaren 9 eta abenduaren 23ko akten berri ematen du eta zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

BIGARREN PUNTUA:

2010 EKITALDIKO AURREKONTUAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.

Alkateak 2010eko aurrekontuaren proposamena egiten du eta adierazten du aurrekontua 1.205.761,45 €-tako dela, kapituloka laburpena ondorengoa delarik:

SARRERAK.

I KAP	ZUZENEKO ZERGAZ	117.000,00
II KAP	ZEHARKAKO ZERGAZ	30.000,00
III KAP	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAZ	52.300,00
IV KAP	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	482.600,00
V KAP	ONDARE SARRERAK	14.000,00

VI KAP	INBERTSIOAK BESTERENGANATZEA	127.000,00
VII KAP	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	242.615,00
IX KAP	FINANTZA PASIBOAK	140.246,45

GUZTIRA **1.205.761,45**

GASTUAK

I KAP	PERTSONAL GASTUAK	225.800,00
II KAP	GASTUAK	290.020,00
III KAP	FINANTZA GASTUAK	19.000,00
IV KAP	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	81.080,00
VI KAP	INBERTSIO ERREALAK	327.861,45
VII KAP	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	174.000,00
IX KAP	FINANTZA PASIBOAK	80.000,00

GUZTIRA **1.197.761,45**

Ondoren, Idazkariak aurrekontuaren inguruan prestaturiko dokumentazioaren eta erredaktaturiko txostenaren berri ematen du.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain eta Luis Berrondo Lanceta
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: Luis Arzallus Amenabar.

Ondoren, Koldok aipatzen du, Udalak nahiz eta aurrekontua onartu, gero kreditu aldaketa egiten duela.

Beraz, aurrekontua eta honen inguruko espedientea onartua gelditzen da.

Ondoren, Idazkariak aipatzen du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan aipatzen dena beteaz, aurrekontua jendeaurreko informaziora jarri behar dela, Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den lanegunetik hasi eta hamabost laneguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko eta inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartuzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Urtero bezela, aurrekontuarekin batera, Udaletxeko plantila organikoa eta udal lanpostu zerrendak onartu behar direnez, 2010 ekitaldirako plantila organikoa Alkateak honako hauek izatea proposatzen du:

PLANTILA ORGANIKOA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-A1
Egoera-H
Udalhitz maila-19
Oharra: % 100eko dedikazioa.

2.- Administrazio Orokorreko Administrari laguntzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-C2
Egoera-J
Udalhitz maila-11

3.- Aguazila/Jakin eratzailer/ Lurpera.

Lanpostuak-1
Taldea-Agrup prof
Egoera-F
Udalhitz maila-11

4.- Garbitzailea.

Lanpostuak-1
Taldea-Agrup prof
Egoera-F
Udalhitz maila-7

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Luis Arzallus Amenabar .
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

Tramitea jarraituaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jendeaurrean egoten den 15 egunetako epean inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**HIRUGARREN PUNTUA:
2010 EKITALDIKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN HASIERAKO
ONARPENA.**

Idazkariak gaiaren laburpen bat egiten du:

UDAL LANPOSTU ZERRENDA.

1.- Idazkari-Kontuhartzailea:

Eskala- Estatuko gaitasuna.
Azpieskala- Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Izaera- Funtzionaria
Taldea-A1
Maila-19
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 4^a
Derrigoratsun data- 1991-06-27
Titulazioa- Z/E/S Liz
Hornitzeko sistema- lehiaketa-oposizioa.

2.- Administrari laguntzailea:

Eskala- Administrazio Orokorra
Azpieskala- Administrari laguntzailea

Izaera- Funtzionaria
Taldea-C2
Maila-11
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 3^a
Derrigoratsun data- 1993-02-26
Titulazioa- Lanbide heziketa
Hornitzeko sistema- lehiaketa

3.- Aguazila:

Izaera- Laborala
Taldea- Agrup prof
Maila-11
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 2^a
Derrigortasun data- 1991-06-27
Titulazioa- Eskola graduatua

4.- Garbitzailea:

Izaera- Laborala
Taldea-Agrup prof
Maila-7
Dedikazioa- %100
Hizkuntz eskakizuna- 2^a
Derrigoratsun data- 1996-12-12
Titulazioa- Eskola graduatua

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

- 1.- Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Luis Arzallus Amenabar.
- 2.- Aurkako botoak: ez dago.
- 3.- Abstentzioak: ez dago.

Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

Tramitea jarraituaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, jendeaurrean egoten den 15 egunetako epean inolako erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

LAUGARREN PUNTUA:
2009-2012 PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOAREN ALDAKETAREN
ONESPENA.

Idazkariak aipatzen du, mailegua 2010.urtean kobratu denez, kobraketa honek 2009ko abenduaren 9an onarturiko Plan ekonomikoarengan aldaketa suposatzen duela eta batez ere, 2010.urtearekiko. Aipaturiko Plana ondorengo 3 dokumentuek osatzen dutela komentatzen du:

- 1.- Kontuhartzailearen txostena.
- 2.- Memoria.
- 3.- 2009-2012 epealdiko aurrekontuen aurreikuspenak.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: Luis Arzallus Amenabar.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2009-2012 plan ekonomiko finantziarioaren aldaketa onartzen da.

BOSTGARREN PUNTUA:
ERREZILGO GAZTELEKU ETA LIBURUTEGIKO ERABILERA ETA
KUDEAKETAREN ESLEIPENA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA
EKONOMIKO ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN PLEGUEN
ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak Errezilgo gazteleku eta liburutegiko erabilera eta kudeaketaren esleipena aratuko duen baldintza ekonomiko administratiboen eta teknikoekin berri ematen du.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik:ez dago.

Beraz, Errezilgo Gazteleku eta liburutegiko erabilera eta kudeaketaren esleipena arautuko duen baldintza ekonomiko administratibo eta teknikoak onartuta geratzen dira.

SEIGARREN PUNTUA:
ERREZILGO EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA
EMATEKO ADJUDIKAZIOAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Ikusirik 2009ko abenduaren 9ako Udalbatzan, Errezilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa ematea Hots Atsegin Elkarteari esleitu zitzaiola behin behineko izaerarekin.

Ikusirik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legearen 135. artikuluan aurreikusitakoaren arabera iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegun gutxienez igaro ondoren, behin behineko akordioa behin betiko bihurtuko dela.

Aipaturiko guztiagatik, Alkateak jakinerazten du, behin behineko akordioa behin betiko bihurtzea eta Hots Atsegin elkarteari behin betiko izaerarekin esleitzea.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik:ez dago.

Beraz, Errezilgo eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa behin betiko izaerarekin Hots Atsegin elkarteari adjudikatzen zaio 2009ko abenduaren 9an harturiko akordioaren arabera.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:
BORONDEGI TABERNA JATETXEAREN USTIAPEN ZERBITZUA
EMATEKO ADJUDIKAZIOAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.**

Ikusirik 2009ko abenduaren 9ako Udalbatzan, Errezilgo Borondegí taberna jatetxearen ustiapen zerbitzua ematea Mertxe Mendizabal Beristain andereari esleitu zitzaíola behin behineko izaerarekin.

Ikusirik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legearen 135. artikuluan aurreikusitakoaren arabera iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegun gutxienez igaro ondoren, behin behineko akordioa behin betiko bihurtuko dela.

Aipaturiko guztiagatik, Alkateak jakinerazten du, behin behineko akordioa behin betiko bihurtzea eta Mertxe Mendizabal Beristain andereari behin betiko izaerarekin esleitzea.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik: ez dago.

Beraz, Errezilgo Borondegí taberna jatetxearen ustiapen zerbitzua behin betiko izaerarekin Mertxe Mendizabal Beristain andereari adjudikatzen zaio 2009ko abenduaren 9an harturiko akordioaren arabera.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
EZINDU BATEN DIRULAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA.**

Ikusirik Beñat Aranguren Esnaolaren familiak Beñati begirale baten bidez laguntza emateko Udaletxean aurkezturiko eskaera.

Ikusirik Udal Gizarte langileak 2009ko abenduaren 16an egindako txostenaren arabera urtarriletik ekainera bitarteko kostua 960 € izango dela.

Ikusirik Beñat Arangureni begiralea otsailetik aurrera jarriko zaiola, Alkateak proposatzen du otsailetik ekainera bitarte 400 €-tako laguntza ematea, ordainketa hilabetea pasa eta hurrengo 10 egunetan ordainduko delarik.

Bozketa egin ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Luis Arzallus Amenabar.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik:ez dago.

BEDERATZIGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.

Ez dago ordainagiririk.

HAMARGARREN PUNTUA: ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.

- 1.- Arkitektoaren kontratazioa.
- 2.- Zezen-Errekako bide burua eta Beorretza lursailetik Beorretza lursaila segregatzeko baimena.
- 3.- Errezilgo azokako kideei 600 €-tako dirulaguntza ematea.
- 4.- Abal baten itzulera.
- 5.- “ Recurso ordinario 831/09” helegitean pertsonatzeko abokatu eta prokuradoreei boterea ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA: GALDERAK ETA ERREGUAK.

1.- 2010eko apirilaren 10ean egingo den XI. Azpeitia- Errezil- Bidegoian Rally Sprint saria dela eta, Udalbatzak, aho batez, Errezilgo zenbait bidegurutze ixteko erabakia hartu du kate eta posteekin. Kate eta poste gastu hauek antolatzaileen kontura izango dira.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederlatziak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.